


CRÓNICAS DE LOS INDIOS GUAYAQUÍ

PIERRE CLASTRES



IKASLEA: Manex Mailharin Ortigosa

IKASGAIA: Antropologiako Oinarrizko Testuak

IRAKASLEAK: Melanía Moscoso eta Iban Ayesta

AURKIBIDEA

1. KOKAPENA.....	3
1.1. Autorea, pentsamendua eta lanak.....	3
1.2. Gure lana eta guayaki indiarrek.....	5
2. EDUKI NAGUSIAK.....	9
2.1. Boterea.....	9
2.2. Erritualak eta sinesmenak.....	10
2.3. Ahaidetasuna.....	11
2.4. Sexuen arteko rol eta lan banaketa.....	12
3. ONDORIOAK.....	15
3.1. Etnografiari eta antropologiari buruz..	15
3.2. Horrelakoa al da gizakia esentziaz?.....	17

1. KOKAPENA

Atal honetan liburua kokatzen saiatuko naiz. Alde batetik, autorearen bizitza, lanak eta pentsamendua landuko ditut. Beste aldetik, libuaren zenbait ezaugarri azalduko ditut eta bertan protagonista den guayaki tribu indigena ezagutarazten saiatuko naiz.

1.1. AUTOREA, PENTSAMENDUA ETA LANAK

Crónicas de los indios guayaquis etnografia Pierre Clastresek idatzia da. Clastres 1934an jaio zen Parisen eta ikasketaz filosofoa izan bazen ere, Claude Lèvi-Straussen eta Alfred Métraux-en eraginez, antropologian jarri zuen bere interes guinea. Autoritatearen eta hierarkiaren inguruko kezka politiko-filosofikoak bultzatuta, eta Étienne de La Boétie-ren *Borondatezko menpekotasunaren inguruko diskurtsoa*-k (Discurso sobre la servidumbre voluntaria) erakarrita, gazte-gaztetatik ekin zion landa lana egiteari, batez ere, Hego Amerikan eta zehazki, Paraguain. Izan ere, ideologia anarkistarengandik hurbil zegoen Clastres 68ko maiatzan aktiboki parte hartu zuen, besteak beste.

Aztertu zituen tribuak, hain zuzen ere, giza-taldetik bereizirik buruzagitarik gabeko tribuak ziren, hierarkia zurrunik gabekoak, berak esaten zuen bezala, ez zuten ez Estaturik, ez Federik, ez Legerik, ezta Erregerik ere. Bere tesi soziopolitikoak defendatzeko baliagarriak izan zitzaizkion egindako landa lanak. Hogeita bederatzi urte zituela, 1963an, urtebete eman zuen Paraguaiko guayaquí indigenekin; bi urte beranduago, 1965ean, herrialde berdineko guaraníekin egon zen misio batean; lauzpabost urtez landa lanak alde batera utzi ostean, 1970ean berriz itzuli zen lurralde haietara, baina kasu horretan, yanomamien artera joan zen eta bere lagun Jacques Lizot-ek lagunduta; azkenik, 1974. urten denboraldi labur bat eman zuen guaraniarren artean, baina aurrekoa ez bezala, Brasilen izan zen. Gainera, urte horretan bertan, *Centre National de la Recherche Scientifique*-eko (Ikerketa Zientifikoko Erakunde Nazionala) ikerlari izendatu zuen eta hurrengo urtean, École Pratique des Hautes Etudes-eko ikasketak zuzendari izateko postu bat eskuratu zuen.



Baina landa lanak egiteaz gain, haiek argitaratzeko ardura ere hartu zuen eta zenbait liburu idatzi zituen. Hego Ameriketako egindako lehen egonaldiaren inguruan (1963), lantzen ari garen

etnografia hau idatzi zuen: *Crónicas de los indios guayakí* (1972); eta guaranien artean bizitako esperientziari jasoz, bi urte geroago *La palabra luminosa: mitos y cantos sagrados de los guaraníes* (1974) lana kaleratu zuen. Bi etnografia horiez gain, beste zenbait lan idatzi zituen. Haietako esanguratsuen bere obra nagusia da, *La sociedad contra el Estado* (1974) lana zehazki esanda. Hori izan zen bizi zen bitartean argitaratutako azken liburua, handik hiru urtetara, 1977an, trafiko istripu batean bizitza galdu baitzuen berrogeita hiru urte besterik ez zituelarik. Hain goiz hil zenez, bere obra bukatugabe utzi zuen eta hori dela eta, gerora, hark idatziriko artikulu eta testuekin hiru lan argitara eman zituzten: 1978an *Los marxistas y su antropología*; 1981ean *Investigaciones de antropología política* eta azkena, 2004an, *Arqueología de la violencia: la guerra en las sociedades primitivas*.

Aipatu ditugun azken lau idazlanek begien bistan uzten dute Pierre Clastresen kezka nagusia antropologia politikoa zela eta urte gutxi bizi izan bazen ere, ekarpen handia egin zion gizarte zientzien munduari autoritate politikoaren alorrari dagokionez. Gainera, berak, ziur aski antropologiaren diziplinan lanean hasi baino lehenagotik, jarrera eta ikuskera argia zuen zenbait zentzutan, estatu egitura hierarkikoen aurka zegoen. Esan dugun bezala, horretarako baliatu zituen bere landa lanak, bere tesia indartu eta garatu ahal izateko. Gehien bat *La Sociedad contra el Estado* lanean ikuspegi eboluzionista gogorki kritikatu zuen, autoritate politikoaren alorrean. Eboluzionisten arabera, estatua da autoritate politikoaren garapenak izan dezakeen bilakaeraren helmuga, hura da forma gorena eta aurreragoko estadio ebolutiboetan dauden giza-taldeak (guayakiak, esaterako) egitura horretara helduko dira goiz ala berandu. Clastres ez zetorren bat planteamendu horrekin; haren iritziz, antolaketa estatala eta garapena edo zibilizazioa ez dira sinonimoak. Izan ere, gizarte tradizionalak zentzu askotan aurreratuagoak diren egitura politikoak dituzte edo zituzten eta ez zuten berdintasunezko sistema tribal eta "komunista" batetik sistema hierarkiko eta azkenik, estatualista batera zertan igaro. Bere iritziz, gizarte komunitarioek edo ez hierarkikoek botere egituren agerpena oztopatzen duten mekanismo kulturalak dauzkate, hala nola, buruzagiak bereiztea, haien funtzioak betetzen ez zituztenean kanporatzea eta buruzagiei soilik ahalmen aholkuematea edo erritualak gidatzeko boterea ematea; baina inoiz ez bortxarako eskubidea. Hortaz, kide ahaltsuek ezin dute euren ospea botere autoritario bihurtu. Horrela, gizarte horietan ez da Estaturanzko garapenik gertatuko, baizik eta eredu berdinzaleen birprodukzioa. Horrek ez du inolaz ere esan nahi botere soziopolikorik gabeko gizarteak zirenik, edo ez zirenik gizarte politikoak, alderantziz, botere politikoa zuten, baina bestelako logika baten baitan egituratua.

Clastresen esanetan, Mendebaldeko Estatuak hertsapen boterearen inguruan egituratu ziren. Gizakiaren joera naturala, aldiz, kontrakoa da, autonomia mantentzera jotzen du eta hortaz, Estaturen logika ez da batere zintzoa, baizik eta maltzurra. Eskema eboluzionistari kritika serioa egiteaz gain, bere ekarpen teoriko garrantzitsuena izan zen 'zor' terminoaren erabilpena. Berak zioenez, gizarte tradizionaletan buruzagia taldearekin zorretan dagoela sentitzen du, paper garrantzitsu hori eskaini diotelako eta beraz, ahal duen onena eman behar du taldea ongi gidatu edo aholkatzeko. Mendebaldeko gizartean, berriz, egoera horri buelta eman zaio eta uste dugu estatuarekin zorretan gaudela, eskaintzen dizkigun zerbitzuengatik eta babesarengatik. Horrela,

lehen kasuan botere metaketa saihesten da eta bigarrean, aldiz, ez. Zorra kitatzeko buruzagiek taldearen onura izango du helburu eta ez bere ongizate pertsonala.

Ikusten dugunez, gizarte tradizionalen antolaketa politikotik egituraketa estataleranzko pausua ez zela ezinbestekoa defenatzeaz gain, egituraketa estatalistari konnotazio negatiboak ezartzen dizkio: koertzioa edo hertsapena, botere metakera... Izan ere, bere pentsakera anarkista zen eta bere obra guztietan sumatu daitezke horren zantzuak. Autore gisa, ezaguna da antropologo marxistekin izandako tira-birengatik. Alde batetik, marxistek egitura estatalak defendatzen dituztelako, nahiz eta komunitaristak eta birbanatzaileak izan eta Clastres edozein autoritate hierarkikoren aurka zegoen. Bestetik, marxistek eta antropologo ekonomikoek defendatzen dute egitura ekonomikoa dela gizarte antolaketaren oinarria eta gainegitura politiko, juridiko eta instituzionala egitura mantentzeaz arduratzen dela; antropologo libertario frantsesak, berriz, esaten zuen gizarte ez hierarkikoetan esfera politikoa antolaketa ekonomikoaren gainetik zegoela. Berak ez zuen onartzen gizartea klaseetan banatzearen ondorioz, edo beste era batera esanda, gizartean desorekak agertzearen ondorioz, sortzen dela Estatua, baizik eta kontrakoa, Estatua da ezberdintasuna eta bortxa ekartzen dituen; hortaz, gatazka esfera politikoaren edo ekonomikoaren nagusitasunaren eremuan eman zen.

Gizarte tradizionalen defentsa ez zuen bakarrik autoritate politikoaren edo boterearen aplikazioari dagokionez gauzatu, baizik eta beste alor batzuetan ere azaldu zen antolaketa primitiboaren alde. Batez ere, eredu ekonomikoan egin zuen hori, beharrak asetzerako mugatua zegoen ekonomia komunitarioa ere defendatu zuen, merkatu ekonomia espekulatiboaren alboan. Eta sinesmen primitiboari ere bere garrantzia aitortu zien.

Hala ere, Clastres ez zen kritiketatik salbu egon. Ez zuen estatuetatik ezer onik espero eta azpimarratzen zuen estatua zela gaitz guztien jatorria, baina leporatu zioten Amazoniako tribuekin izandako esperientzia ez zela nahikoa hori baieztatzeke eta estaturik gabeko gizartearen gailentasuna erakusteko; auzia konplexuagoa zela. Nolanahi ere, oso esanguratsua izan zen bere ekarpena eta beste autore batzuegan eragin handia izan zuen, besteak beste Gilles Deleuze (1925-1995) filosofo frantziarrarengan edo guregandik hurbilago, Fernando Savaterrengan, *Panfleto contra el todo* (1978) saiakeran somatzen den bezala.

1.2. GURE LANA ETA GUAYAKI INDIARRAK

Behin autorearen obra eta pentsamendua argituta, zehazki, monografia honetan lantzen ari garen lanaren inguruan arituko gara, *Crónica de los indios Guayakí* (1972) liburuaren inguruan, hain zuzen ere. Aurrerago esan dugun bezala, etnografia hau 1963an Paraguain guayaki tribuen artean egindako egonaldiaaren emaitza da. Bertan bizitakoa xehetasun handiz kontatzen du antropologo frantziarrak. Etnografian batek behar duen guztiaren inguruan hitz egiten digu autoreak, bizimoduaren esparru esanguratsu bat ere ahaztu gabe. Tribu horien ingurunea, ahaidetasuna, umeen hezkuntza eta tratua, erritualak eta jaiak, sexualitatea, erabiltzen duten teknologia, heriotza, mitologia eta buruzagitzak sistemak biltzen ditu bere etnografia osatu honetan. Baina irakurlearentzat onargarriak ez diren praktikak ere ez ditu alboratzen, maisuki

kontestualizatzen dituelarik: haien arteko bereizketak, erailketak, sakrifizioak, infantizidioa eta antropofagiaren praktika, esaterako. Unibertso kulturalaren sakontasunean arakutzen du Pierre Clastresek, haien pentsamenduaren barne logikan. Hori dela eta, lantzen ari garen etnografia bikaina kontsideratua da.

Gainera badago beste alderdi aipagarri bat Clastresen lan honetan. Erabiltzen duen hizkera konplexutasunetik eta naturalismotik urrundu egiten da eta denok ulertzeko moduko hizkera bat darabil. Gainera, liburua aitortza bat da, usteltzen hasia den kultura batean bizirauten duen giza-talde batekiko aitortza bat, bere tonu melankoniatsu eta guzti. Amerikan azken 500 urtetan gertatutakoaren testigantza bat da, Europar bezala, kontzientzian harrak dituen antropologo nostalgiko baten eskutik, inon eta inoiz gizaki libreak izan zirela existitu zirela argi utzi nahi duelarik.

Esan beharra dago guayakiak (edo aché-ak ere deiturikoak) orain ez direla existitzen, gizarte modernoan integratzera behartu zituztela. Hala ere, haien bizi ereduak, Hego Amerikako beste tribuen bizitzarengandik oso bestelakoa, ahalbidetu zien urte luzez txuri kolonizatzaileen eraginetik libratzea, eta beraz, esklabutzatik, heriotzetik eta desagerpenetik.


Guayakiena ehizatik eta uzta biltzetik bizi zen giza-talde xumea dugu, Paraguaiko ia ekialde osoa hartzen duen oihan tropikala zuena bizileku gisa, herrixka finkorik ez zuten arren. Guaraní hizkuntzaren antzeko lengoaia batean mintzatzen ziren, baina zalantza dago ea guaraniaren aldaera bat den, edo besterik gabe, harremanetan egotearen ondorioz, bere eragina jaso duen. Euskaldunena bezala, haien jatorri etnikoa ez da ezaguna, baina badituzte besteengandik bereizten dituzten zenbatit ezaugarri. Itxura fisikoari dagokionez, azal zurikoak dira, begi argiak dituzte eta bizardunak dira, gizonak behintzat. Haien jardunari dagokionez, praktika kanibalista da haien ezaugarri bereizgarrietako bat.

Gainontzeko tribuek baino gehiago bizirauteko arrazoi nagusia nomadismoa da; izan ere, guayakiak denboraldi jakin batean zehar lurralde batean egoten ziren, baina bertako baliabideak agortzean beste eremu batzuetara lekualdatzen ziren. Kolonoen garaitik jaso izan da herri honen inguruko informazioa eta esan izan da beste edozein talderekiko kontaktua saihesten saiatzen zirela, eta guaraniekin, esaterako, harreman txarra zutela.

Antolaketari dagokionez, hasieran ez omen ziren bateratuta bizi, baizik eta elkarrengandik bananduta, 50 kide inguruko taldetan. Soilik erritual zehatz batzuetarako biltzen ziren eta hamar bat egunez elkarrekin egoten ziren berriz ere banandu baino lehen. Taldeen osaera ez zen homogenea, lagun erlazioa zuten taldeak zeuden, familia erlazioa zutenak, nahasketak, etab. Talde bakoitzak eragin handiena zuen gizonekoaren izena hartzen zuen, buruzagiarena. Hala ere, lidergoa ez zen zerbait absolutua, ez zuen gure liderraren irudia, ez eta botere politiko edo erlijiosorik. Erabakiak adostasunez hartzen ziren, eta desadostasun handiak izatekotan, disidentzia taldetik bereizten zen. Zaintza lanak emakume haurdunek eta pertsona zaharrek egiten zituzten. Tribu nomada zen aldetik, inguruko baliabideak agortzen hasten zirenean, hasieran talde txikiagoetan banatzen ziren, haietako bakoitzak ardura bat hartuz (ehiza, bilketa, zaintza...), baina

zaharrek eta umeek ez zuten parte hartzen, lan egiteko ezintasuna dela eta. Baliabideak guztiz agortzean, orduan bai hartzen zuten lurraldez aldatzeko erabakia.

Sexualitatearen eta harreman afektiboen gaiari helduz, esan beharra dago emakumeek hautatzen zutela norekin ezkondu, hamabost urte inguru zituztenean. Bestalde, poligamia ez zen batere gauza ez ohikoa; izan ere, emakume bakoitza hamar gizonekin ezkontzera ere hel zitekeen. Clastesen etnografian, esaterako, erditzen bat kontatzen da eta emakume hori bi gizonekin zegoen ezkontuta Hala ere, intzestua ez zegoen onartua, anai-arrebek eta lehengusu-lehengusinek debekatuta zuten elkarrekin ezkontzea. Sexuek itxura fisiko berezitua zeukaten: emakumeek ilea motza izan behar zuten eta hortzez zein haziz hornituriko lepokoak erabili, apaingarri gisa, gizonek ere ile motza izaten zuten eta apaingarriak ere jar zitzaizkien. Gainera, pertsonen heldutasuna adierazten zuten erritualak ere baziren. Emakumeek lehenengo hilekoan, harekin hilekoa baino lehenago harreman sexualak izan zituzten gizonak bildu eta garbituak izaten ziren; bestetik, gizonek bizarra ateratzen hasten zitzaizkienean, beheko ezpaina zulatu egiten zieten eta *tenbeta* izeneko makiltxo bat sartuko zieten denboraldi batez.



Zoritzarrez, Pierre Clastresek landa lana egin eta urte gutxitara utzi behar izan zuten guayakiek euren bizimodua, agian liburua argitaratu zuenerako, haien tribuak desagertuak ziren. Dakigunez, 1492. urtean heldu ziren espainiar kolonizatzaileak Ameriketara eta 1515erako Paraguain ziren. Ordutik, oso gorabeheratsua izan da bertan zeuden kolonoek haiekiko izandako tratua: hasieran, Amerika osoko indigenen antzera, bortizki ehizatuak, gaixotuak eta bortxaz erabiliak izan ziren; baina esaten da jesuitek XVII. mende aldera, hobe tratatu zituztela, haien misioetan integatuz eta haien matxinadak babestera hldu zirela. Nolanahi ere, guk azken urteei erreparatuko diegu, tribu honen desagertzea ulertzeko. 1954-tik 1989-ra Alfredo Stroessner izan zen Paraguaiko presidente, 35 urte iraun zituen diktadura batean. Haren garaian, ekonomia hedatzeko politika egin zen eta beraz, errepideak eta abeltzaintza ekialderantz zabaldu ziren. Ondorioz, achéak edo guayakiak geroz eta txikiagoa zen lur eremu batera mugatu behar izan ziren. Hala ere, ez zuten haien bizimodua abandonatu eta besteak beste, inguruko lur sail jabeen abereak ehizatzen hasi zirenean, gobernuarentzako arazo bilakatu ziren. Erantzun gisa, 60. hamarkadaren

amaieran kolonoek guayaki tribuko kideak ehizatzeari ekin zioten eta gobernuak egoera baretzeko, sedentarizazio prozesu bat jarri zuen martxan, giza-talde horiek *Guayakien Kolonia Nazionalera* eramanez. Arjun Appaduraik esango luke, kolonoz osaturiko gobernuak identitate predatorio bilakatu zela, gutxiengo tribalak bere nagusitasuna kentzeko beldurrez. Hortara ukatu zirenak ehiztari taldeek indarrez harrapatu eta lekualdatu edo erail zituzten. Kolonian esklabo edo lan esku merke bilakatu ziren, ume asko Paraguaiko familiei saldu zizkieten eta elikagai eta mediku falta dela eta, heriotza masiboak gertatu ziren. Horrela, bost hilabete eskasean erdira jaitsi zen guayakien kopurua, azkenik, desagertu ziren arte.

2. EDUKI NAGUSIAK

Atal honetan etnografian zehar topatu ditugun gai esanguratsu batzuen inguruan arituko naiz eta gelan irakurritako testuekin, mendebaldeko errealitatearekin eta bestelakoekin lotzen saiatuko naiz.

2.1. BOTEREA

Hasteko, autorearen ikuspegia gordez, berarentzat garrantzitsuena izanen zen gaiari helduko diot, hau da, botereari edo autoritatearen gaiari. Egitura konplexu eta hierarkikorik ez zutenez, pentsa daiteke guayakiaena kultura apolitikoa zela, non ez zegoen botererik. Hala ere, hori ez da inolaz ere horrela. Etnografia honetan ikusten den bezala, guayakien artean boterea ez da bortxarekin edo bortizkeriarekin lotzen, eta ez dago komunitateko kideen artea menpekotasun egoerak mantentzen dituen hierarkiarik. Izan ere, guayakien artean beste era batera egituratzen da boterea, gizarteari lotuta, hain zuzen ere. Gizartea eta boterea ez dira bereizten; buruzagiak ez ditu aginduak ematen, gizartearen zerbitzura baitago. Hortaz, boterea komunitatetik atera eta komunitatera bideratzen da, ez dago harengandik bereizia.

Esan dugu tribu honen baitan buruzagiaren edo autoritatearen esentzia ez dela bortxa, mendebaldean bezala, eta orduan gure buruari galdetuko diogu zein den? Bada, guayakien kasuan esentzia hitza da; hitzak garrantzia handia hartzen baitu haien kutluran. Hitz egitea hitz egiteko boterea izatearen adierazle da. Batzuetan protokolozkoa diren arren, gehienetan, buruzagiaren hitzek zilegitasuna dute, kontuan hartzekoak dira, baina ez dira agindu gisa ulertu behar, baizik eta aholku edo bedeinkazio gisa. Hain daude boterea eta hitza edo mintzaira lotuta, non guayakien hizkuntzan buruzagi hitzak *hitzen jabe* esan nahi duen. Buruzagia nor den jakiteko nor hitz egiten duen galdetu beharra dago. Hortaz, hitza da boterearen erabilera onartua. Nolanahi ere, ezin dugu pentsatu buruzagiaren hitza errespetatua dela buruzagia delako, baizik eta alderantziz; mintzatzeko trebetasuna erakutsi beharra dauka buruzagi izatera iristeko.

Gurera ekarriz, Clastesek defendatuko zukeen moduan esan beharra dago berdintasuna bermatzen duten mekanismo horien eraginkortasunak, gizarte modernoetako instituzio hierarkizatuen zilegitasunari buruz hausnartzera eramane beharko gintuzkeela. Eta hori ez badugu egiten, behintzat ez ditzagun epaitu gizarte ez hierarkikoak bilakaera soziopolitikoari dagokionean, zero mailan baleude bezala, ez baita horrela. Bestalde, guayakien komunitatean botereak duen esentzia gure inguruko zerbaitekin parekatu nahi nuke. Egia da gobernu egituretan bortxa, agerikoa edo ezkutukoa, dela nagusi eta hitzak garrantzia gutxi duela eta garrantzia duenean, manipulazioa sartzen dela jokoan. Hala ere, zenbait esparrutan hitzak zentralitatea berreskuratzen du. Atal hau idazten ari nintzela, *nor da hitz egiten duena?* galdera hurbilekoa egin zait. Izan ere, ni gaztetxeen munduan nabil eta herri jakin batean inplikatuena nor den, iritzi kritikoak dituen nor den eta oro har, taldearen inizatiba eramaten duena nor den galdetzeko galdera hori entzun izan dut. Eremu horretan, iritzia ematea, asanbladetan hitz egiteko joera izatea neurri batean eragiteko boterearekin lotzen da. Nahiz eta kasu horretarako botere hitza ez onartu, beste modu batean formula daiteke: asanblada bateko dinamizatzailea hitza gidatzen duena da, txandak errespetarazten dituen, landuko diren gaiak aurkezten dituen eta nolabaiteko boterea

dauka, bortxatik oso urrun dagoen boterea. Hortaz, gurean ere hitza eta boterea lotuta daudela esan daiteke, edo behintzat esparru jakin batzuetan.

2.2. ERRITUALAK ETA SINESMENAK

Pierre Clastresentzat lehentasunezkoa zen gaiarekin hasi naiz boterearekin. Orain, *Crónicas de los indios guayaquis* laneko lehen gai esanguratsuekin jarraituko dut, erritualekin eta haiek bermatzen dituzten sinesmenekin. Izan ere, etnografia hau *Pichugi* emakumearen erditzearekin eta erditzearen inguruko erritualarekin hasten da. Guayakientzat jaiotza ez da pertsona berri baten agerpen soila, unibertsoan sorturiko desoreka bat adierazten du. Desoreka hori giza unibertsoaren eta indar ikusezinen artekoa da eta erritua hura orekatzera bideratua dago. Emakumea hostoen gainean esertzen dute eta lurlean sarturiko makil sendo bati indarrez eutsiko dio. Erditzea isiltasunean egingo da ikara eragiten duten izaki ikusezina ez erakartzeko. Prozesuan bi zeregin ezberdin betetzen dituzten bi pertsonaia bereizten dira: *jware* deiturikoa eta *upiaregi* deiturikoa. Lehenengoa gizona izaten da eta bere ardura da ama eta alaba bereiztea zilbor-hestea moztuz, eta ondoren, haurra bainatzea. Bigarrena, aldiz, emakumea da eta lan konplexuagoa egokitzen zaio; honek umea bere gorputzeko beroaz berotu behar du ezkerreko eskuaz bularren aurka estutuz eta eskuinekoarekin haurrari *piy* izeneko masaje bat emanaz. Hala ere, bere eginkizun garrantzitsuena eta sinbolismo handiena duena haurra lurretik altxatzea da, guayakientzat jaiotzea eta erortzea sinonimoak baitira (biak *waa* aditzaz adierazten dira). Hortaz, altxatzeak ezer ez izatetik gizaki bihurtzera pasatzea esan nahi du. Horren ondoren ere errituak jarraipena du. Isuritako plazenta urrun lurperatzen da, higieagatik eta mehatxuetatik babesteko; *Cachugi*-k, aitak, lehen egunetan ezingo du ama ikusi ehizan zori txarra (*pane*) ekarriko baitio eta gaua beste etxola batean pasa ondoren, hurrengo egunean, goizean goiz, ehizatza joan beharko du *bayja*-z, izakiak erakartzeko ahalmenaz, aprobetxatzeko.



Komunitate guayakiak gertaerei ematen dien dimentsio sozialak arreta deitzen du. Izan ere, hasieran aipatu dugun bezala, errituak ez dira bakarrik erditzean egiten, baizik eta lehen hilerokoan, bizarra ateratzean, heriotzetan, eta abarretan. Errituek eta bestelako ospakizunek guayaki indigenen bizimoduan garrantzia handia hartzen dute. Esan dugun bezala, erritu hauek beti sinesmen multzo bati atxikiak gertatzen dira; ez dago erriturik bere zergati edo azalpen berezirik gabe. Miresgarria da sinesmenak erabiltzea bizitzako pasarte zehatzetan praktika jakin batzuk bideratzeko. Guk ezagutzen ditugu erlijio monoteistek hori baino gehiago bilatu izan dute: munduaren sorrera azaldu, etikoki jardun batzuk hautatu eta besteak baztertu eta gainera, askotan botere gosearekin eta hedatzeko desirekin lotuta egon dira. Hori dela eta, azken hamarkadetan indarra galtzen ari dira. Hala eta guztiz ere, gizakiarentzat, gizaki den aldetik, beharrezkoa da bere bizitzari zentzua emateko zerbait izatea, bizitzen jarraitzeko helduleku bat ezinbestekoa da. Antropologiarako Sarrera II ikasgaiaren ikusi genuen bezala, erlijio nagusiek jokatzeko zuten funtzio hori orain beste elementu batzuek jokatzeko dute, hala nola, zientziak eta bere progresioak edota ezkerreko ideologiek proposatzen dituzten metakontakizun utopikoek (sozialismoak, komunismoak, anarkismoak...). Hortaz, argi dago gauza bat edo bestea izan, gure jarduna gidatzeko eta hari zentzua emateko euskarri sendoak behar ditugula. Kontua da nolakoak diren euskarri horiek. Erlijio monoteistek esan bezala bilakaera aldrebes bat izan dute, baina animismoak, adibidez, funtzio hori ongi betetzen du.

Gainera, guayakiek eguneroko gauzei maisuki txertatzen dizkiete elementu mitologikoak. Adibide on bat dugu erditu ondoren urari ematen zaion erabilera, *jware* izeneko gizonak haur jaioberria bainatzen du. Ekintza horri azalpen mitologikoa ematen zaio: aché-en arbasoak lur zaharretatik berrietarako bidean ur ederretatik igaro omen ziren. Horregatik bainatzen dituzte haurrak; baina noski, ekintza hori ere higienikoa bada. Honenbestez, agian uraren erabilera higienikoa da besterik gabe, baina haur jaioberria bainatzeaz ez ahazteko eta praktika orokortu bihurtzeko, kontakizun mitologiko batean oinarritzen dute, horrela higie-ekintza horren iraupena bermatuz. Berdina gertatzen da aitak hurrengo egunean egin behar duen ehizarekin eta beste zenbait ohiturekin; ez dira zentzurik gabeko ekintzak, ostiraletan haragirik ez jatea bezalakoak, baizik eta biziraupenerako eragina duten praktikak sinesmen batzuk ezarriz errazago egiten direnak.

2.3. AHAIDETASUNA

Hirugarrenik ahaidetasunaren inguruan arituko gara laburki. Aurreko atalean aipaturiko jaiotzatik abiatuta, guayakien artean nagusi diren senidetasun harremanak aztertuko ditugu. Arlo honetan ere interesgarria gizarte modernoetan ditugu senidetasun harremanetatik harago begiratzea eta gainontzeko kulturek taldeak nola egituratzen dituzten ikustea, aldaketa handiak baitaude. Guayakien kasuan, ahaidetasunak harreman biologikoak gainditzen ditu, gero ikusiko dugun bezala. Dena den, harremanen nukleoa senar-emazte harremanek eta guraso eta seme-alaben artekoak osatzen dute.

Hala eta guztiz ere, badago guayakiak berezi edo ezberdin egiten dituen elementu bat senidetasun harremanetan ere: aitapontekoaren eta amapontekoaren agerpena. Noski, kristautasunak ere izendatzen ditu horrelako pertsonak, baina familiako kideei eskatu ohi zaie paper hori bete dezaten. Aché-en kasua ezberdina da; haien kulturaren emakume baten haurdunaldian eta batez ere erditu berritan *jware* eta *upiaregi* direnak dira aita zein amaponteko. Egun, kristautasunak paper horiek izendatzen ditu, baina esan daiteke protokolaria dela, ez baitute benetako zereginik bi pertsona horiek. Guayakien artean, aldiz, betebeharrak badituzte: *upiaregik*, amapontekoak, lehen egunetan haurra bere gain hartuko du, ama biologikoak atsedean hartzen duen bitartean, eta gerora, bizitzan zehar, haurrak amapontekoaren laguntza jasoko du; *jwarek*, berriz, elikagaiak eman behar dizkio amari haurdunaldian zehar. Bi pertsona horiek haurraren bizitzan zehar, batik bat haurtzaroan, haren laguntzaile izango dira eta gero, zahartzen direnean, paperak aldatu eta gazteak izango dira *jware* eta *upiaregi* zainduko dituztenak.

Esan daiteke *upiaregi* eta *jware*, aita eta amapontekoarekin parekatu ditugun arren, mendebaldera ekarrita, aitona-amonon funtzioa betetzen dutela, hau da, gurasoek ezin dutenean haurrak zainduko dituzte, baina zahartu eta gaixotzean, gazteak izaten dira ospitalean amona edo aitona zaintzen txandak egiten dituztenak. Oso antzekoak dira guayakien bi pertsona horien eta hemengo aitona-amonon egoera. Bien arteko alde harreman hori ezartzeko era da, gurean gehiena biologiak ezartzen baitu eta guayakien kasuan, nahaseta bat da. Berriz ere, ohitura tribalen defentsan agertu beharra dago. Izan ere, sinesmenen kasuan esan mitologia eta pragmatismoaren arteko nahasketa bat zegoen bezala, hemen harreman biologikoen eta bestelako gizarte harremanen arteko hibridazio bat ageri da. Biologiak gurasoen, eta batez ere amaren, eta seme-alaben arteko harremanak ezartzen ditu, Robin Fox senidetasunaren antropologoak zioen bezala, harreman garrantzitsuenak. Baina horitik aurrerakoa ez da DNA partekatzearen arabera ezarriko. Tribuan denetarik dago, odolez senideak direnak eta ez direnak eta denak nahastuta bizi dira. *Jware* eta *upiaregi* ere ez daude biologikoki lotuta zaintzen duten haurrarekin. Honek berriki ikusi nuen bideo bat ekartzen dit gogora, zeinetan Anna Gabriel CUPeko parlamentariak elkarrizketa batean haurrak kolektiboki izatearen alde egiten duen (amaieran jarri dut linka), jakinduriaz jositako hitzak erabiliz. Hala ere, salbuespen bat jarri behar da biologiarekin loturarik gabe ahaidetasun harremanetan: anai-arreben eta lehengusu-lehengusinen arteko ezkontzak edo sexu harremanak debekatuta daude.

Berriz ere, honek eraman beharko liguke gure senidetasun harremanak aztertzeraz, epaitzeraz eta berrikusteraz, nahiz eta gero ondorioa bere horretan uztearen aldekoa izan.

2.4. SEXUEN ARTEKO ROL ETA LAN BANAKETA

Azkenik sexuen arteko bereizketa izanen dugu hizpide, haien artean rola eta lanak banatzeko modua. Izenei dagokieraz, emakume eta gizonen artean ez dago alderik, animaliekin loturiko izen asexualak erabiltzen baitituzte. Baina hor amaitzen da bi sexu nagusien artean dagoen parekotasun edo bereizketa eza. Izan ere, guayakien artean ere badira genero rola eta lan banaketa argia. Gizonak izaki indartsuak, ausartak eta adoretuak dira eta beraz, ehiza eta harekin

loturiko zereginak (lantzak egitea, zorroztea...) haien ardura izanen. Emakumea, aldiz, ahulagoa da, aldakorra eta kaltebera; ondorioz, hobe du etxean geratzea, inori ez baitzaio gustatuko hura ehizan ikustea. Gizonaren lanabesak arku edo lantza diren bitartean, emakumearena saskia da. Horrek esan nahi du biltzaile lanak egiten dituela: kanpamendutik ateratzen dira taldeko zenbait emakume batera eta oihaneko fruituak, eztiak, larbak eta bestelakoak saskian jaso eta kanpamendura eramaten dituzte. Gainera, haiek sukaldatea ere emakumeen ardurapean dago. Jakina, bi jarduerak ez daude berdin baloratuta. Izan ere, bilketaren emaitzekin ez da aski taldea ongi elikatzeke eta horregatik, ehiza da elikagaiak lortzeko bide nagusia. Horren ondorioz, haur bat jaiotzen denean, guayakien lehentasuna argia da, denek nahiago dute mutila izatea, taldearentzako haragia lortzea bermatzen baitu horrek. Hor biolentzia sinboliko edo psikologikoa sumatu daiteke, guayakien artean ez baita ageri biolentzia fisikorik. Gurera ekarrita, antzeko jokabidea dugu down sindromedun haurrekin edo bestelako jaiotzetiko "akatsak" dituzten pertonekin, baina ez emakumeekin. Guk gure seme-alabak ageriko urritasunik ez duela baieztatzean hartzen dugun lasaitua hartzen zuten guayakiek jaio berriak alua ez zuela konprobatzean. Indian eta Txinan, adibidez, antzeko jarrerak daude; zenbait faktorek eraginda, abortatu edo alaba hiltzeraino. Bigarren kasuan haur bakarra izateko politikak eragin handia du. Autorea aldiz, hau justifikatzen saiatzen da, honela: "Honekin ez dut esan nahi emakumeak gutxiesten dituztenik: beraien anaiak bezain beste mainatzen baitituzte."

Bestalde, *bayja* eta *paneren* inguruan hitz egiten dugu, emakumeekin lotuta dauden, baina gizonengan eragina duten kontzeptuak, hain zuzen. *Pane* ehizarako zori txarra da eta *bayja*, berriz, izakiak erakartzeko indarrarekin pareka daiteke. Bi kontzeptu sinboliko horiek emakumearengandik datoz, haurra jaiotzen den egunean, hura ikusten badute pane izanen dute eta bestela bayja. Hortaz, emakumeak sortzen ditu, baina bakarrik gizonari eragiten diote. Hori bi sexuei atxikitzen zaizkien ezaugarriekin estuki lotuta dago: emakumea, kaltebera, da sentikorra eta bera da gaitzaren sortzaile, baina gizona ausarta eta adoretua denez, bera da gaitzarekin aurrera egin dezakeen bakarra; emakumeak patua sortzen du eta gizonak garraiatu. Ikuskera honekin historian zehar ezagutu ditugun mito askotako eskema berdina errepikatzen da, gizona gizaki osoa da, perfektua eta emakumea zoritxarrenekin lotua dago. Pentsamenduaren Historia II ikasgaiaren Greziako jainko-jainkosen zenbait mito ikasi ditugu eta haietako bat emakumearen sorrerarekin lotzen da. Mitoak dioenez, Zeusek Pandora, lehen emakumea, sortu zuen Prometeo gizakien laguna zen jainkoa eta gizakiak zigortzeko. Pandora oso pertsona ederra zen, liraina, baina edertasun horren azpian izaera maltzurra zuen, gaitz guztiak zituen barruan gordeta. Adan eta Evaren kondairan ere esaten da Eva Adanen saihetsetatik jaio zela, berriz ere emakumearen menpekotasuna erakutsiz.

Rolen eta lanen banaketarekin amaitzeko, seme-alaben eta aitaren arteko urruntasunaz laburki arituko naiz. Esan dugunez, haurra jaiotzen denean, aitak ezin du hurbil egon, *panearen* arriskua baitago. Aitaren baliagarritasuna ez da lotzen haur jaioberriaren zaintzarekin, baizik eta hurrengo egunean haragiarekin etortzearekin. Gizon hori ez bada ehizarako jaioa, oihasan piztiekin hilko dute eta esku hutsik itzuliz gero, taldearengandik gutxietsia izango da. Horren arrazoia ez dago argi; izan daiteke ehizarako balio ez duten gizonak taldetik botatzeko nahia edo

biziraupenarekin loturiko uste bat. Izan ere, taldera gizabanako berri bat etortzen bada, taldeak nolabait moldatu beharra dauka.

Azkenik, gizon batzuen ehizarako gaitasun ezarekin lotuta, homosexualitateaz edo gizontasun ez normatiboez arituko gara atal honetan, beste atal luze baterako emango lukeen gaia den arren. Gure kulturaren bezala, sexualitate ez-normatiboak dituzten pertsonak sozialki baztertuak dira guayakiarren artean. Haien kasuan gizontasunaren esentzia ez dago hain lotua izaerarekin edota orientazio sexualarekin, baizik eta haien jardura nagusiarekin, hots, ehizarekin. Gizona izateko ehizatzen jakin behar da eta ordura arte ez da inor gizon gisa hartuko. Etnografiako zazpigarren kapituluaren, *Vida y muerte de un pederasta* deiturikoan, *Krembegiren* kasua azaltzen da. Krembegi tribuko pertsona bat da, ehizan zeuden gizon batzuek saien pista jarraituta, hilik aurkitu zutena. Momentu hartan, ez zuen inork pena sentitu. Zergatik ote? Izan ere, Krembegik *pane* zeuka, ehizatzeke ezintasuna, gogor saiatuta ere. Hortaz, Krembegi ez zen gizon haien arteko bat, ehizan ez jakiteak gizontasuna galarazten baitzion. Krembegi ez zen besteak bezalakoa; normalean maskulinitatea edo feminitatea sexuari lotua zegoen, baina Krembegi-k eskema guztiak hausten zituen. Ehizan ibili ordez, oihanean elikagaiak biltzen eta etxolan sukaldatzen ibiltzen zen, emakumeekin batera; geziak zorrotzu ordez, lepokoak egiten zituen. Beste tribu batekoa zenez eta beranduago joan zenez taldera, familia batekin batera bizi zen eta gizonaren bigarren emakumea balitz bezala hartzen zuten. Taldeak, hurrek zein helduek, mespretxatzen zuten, ez zuten serio hartzen. Biologikoki arra da, baina lanari dagokionez, emakumeek bezala, jarduten du. Hala ere, ez dute emakume gisa ulertzen, handia eta ausarta baita. Galdera hurrengoa da: bazituen sexu harremanak? Eta hala bazen, norekin? Emakumeekin ezin zituen izan gizona ez zelako, baina gizonak hura gutxiesten zuten. Hortaz, sexualitatearen arau haustea areagotuz, sexu harremanak bere anaiarekin izan ohi zituen.

Beraz, ikusten dugu boterearen, sinesmenen eta ahaidetasunaren esparruan, ikusi dugunez, gureaz oso bestelakoa den kultura batean, rolen banaketa eta oro har, patriarkatuaren eragina berdin berdin nabaritzen dela. Rolak eta lanak ongi bereiziak dituzte, eta oso gaizki ikusia dago arau horiekin haustea, Krembegiren kasuan ikusten den bezala.

Jorraturiko gaiez gain beste zenbait auzi landu zitezkeen *Crónicas de los indios guayaquis* etnografan zehar ageri direnak. Horietako batzuk dira bizitzeko baliabideak eskuratzeko eta banatzeko morduak (izan ere, ehizaren emaitza den artean jaten zuten, baina ehizatu zuen gizonak ezin zuen berak ehizaturiko haragitik jan), heriotza-erritu bezala ulertzen zen kanibalismoa, heterosexualitatearen gailentasuna, intzestuen tabua edota poligamia. Hala ere, oraingo honetan ez naiz horiei buruz arituko

3. ONDORIOA: HAUSNARKETAK ETA KEZKAK

Azken atal honetan, etnografiak sorturiko hausnarketak bilduko ditut, bi zatitan banatuta. Batetik, etnografiak berak sortu dizkidan kezka eta bestetik, etnografiak lantzen dituen edukiek piztu dizkidanak.

3.1. ETNOGRAFIARI ETA ANTROPOLOGARI BURUZ

Gorago, guayakiarrei buruz idazten ari nintzela, momentu batez nazka sentitu dut nire buruarekiko, eta ikasten ari naizen diziplinarekiko. Bertako gizon bat izendatzerakoan, zalantza egin dut gizon edo ar jarri behar nuen eta ez biologikoki arra izateak ez duela zertan genero maskulinoarekin lotuta egon, baizik eta animalia gisa hartzen ari nintzelako. Momentu horretan, flash bat sentitu dut, *zertan ari ote naiz?* galdetu diot nire buruari eta monogafia honen eskeman gai hau gehitu dut. Hala ere, argi dago, galdera hau ez da pertsonala, baizik eta guztiz kolektiboa. Nor gara gu haiek animaliak balira bezala aztertzeke, deskribatzeke? Oso jarrera paternalista iruditu zait momentu horretan. Izan ere, imaginatzen ditugu guayakiarrak Europara etortzen eta harresi handiz inguraturiko zelai berdeetan sartzen, hara joan eta *jokalari* deitzen diren hogeita bi gizon itxurosok *baloi* deitzen duten gauza borobil bati (eta baita elkarri) kolpeak nola ematen dizkieten ikusteko lan egitean jasotzen duten diruaren zati handi bat ordaintzen duen jendea elkarrizketatzen? Edota baloi hura gelditzen eta gauzak apuntatzera pausatzen? Bada, barregarria suerta badaiteke ere, hori da etnografiak egin izan duena.

Gainera, ez da soilik jarrera paternalista batetik aztertzea, mendebaldekoak zibilizatuak eta haiek basatiak balira bezala, guk aztertzeke eta haiekin ongi pasa eta liburuak idazteko existituk balira bezala; okerrena haien praktikak, ohiturak eta antolatzeke moduak gutxiesten ditugula. Gure zilborrari begira pasatzen dugu denbora, eta begirada handik aldentzean, bestea epaitzeke gure zilborraren itxura hartzen dugu eredutzat. Botere egitura hierarkikorik ez badute, azpigaratuak direlako; ez badute jainko zehatzik herexeak direlako; hildakoak jaten badituzte, basatu hutsak direlako... Ezin dugu onartu gureaz bestelako bizimoduak ere gureak bezain onargarriak direla? Aitortu beharra dago Pierre Clastresen etnozentrismo hori alboratzeko saiakera ona eraginkorra egin zuela, baina oro har, etnografiak ikuskera etnozentrista dakar berarekin batera. Berak, gainera, guayakien praktikak defendatu zituen eta esaten zuen epaitu nahi baditugu haien bizitzan murgildu behar garela, gure aurreiritziak alboratuz. Horrek ez du esan nahi erlatibismo kulturalaren alde egin behar denik, baina bai kontu handia izan behar dela beste giza-talde batzuen ohiturak epaitzerako orduan.

Bestalde, orain dela aste bete Antropologiarako Sarrera II ikasgaiarako egindako idazlan batean etnografiaren zereginaz egindako hausnarketa hona ekarri nahi dut, Pierre Clastresen obra oso gertu baitago idazlan horretan defendatu nuen etnografiaren funtzio idealetik. Hasierako galdera eta berriz ere, planteatu nahi dudana da ea zertarako balio duen etnografiak, zein den bere funtzio praktikoa. Batzuetan, oso literarioak dira etnografian eta egiazkoak edo asmatuak izateak

ez du asko axola, tribu exotiko baten inguruko kontakizun hutsera mugatzen baitira. Besteetan, aldiz, oso hizkera teknikoa darabilte eta elite intelektual batek bakarrik uler ditzake. Eman dezagun Pierre Clastresek landa lana egin aurretik dokumentazio asko zegoela guayakien inguruan eta haren bizimoduaren berri emateko eta hausnarketa egiteko, beste batzuen liburu eta idatzietara mugatuko litzatekeela. Emaizta edonoren esku egongo ez zen liburu aspergarri bat izango litzateke. Kasu horretan beteko zukeen funtzio bakarra aditu gutxi batzuek liburua irakurtzea eta haren inguruan iritzi truke bat bideratzea izango litzateke. Literatura hutsera mugatu izan balitz, irakurlea erakartzea eta olerki baten aurrean balego bezala gozaraztea izango litzateke bere funtzioa. Baina diziplina zientifiko bat den aldetik, antropologia ezin da horretara mugatu.

Etnografiaren funtzio praktikoa munduko kulturen arteko informazio trukea izan behar da, bizitza inguratzen duten esparru guztiak kudeatzeko moduen inguruko informazio trukea. Horrek ekarriko luke, norberaren kultura zalantzan jartzea, berrikustea, eta beharrezkoa izanez gero, aldaketak egitea, edo behintzat, ulertzea norberaren gizarteko bizimodua ez dela ezinbestekoa, halabeharrezkoa, eta badaudela gauzak egiteko beste modu batzuk, balio berdina izan dezatekenak. Ulertzea Amazoniako, Hego Afrikako eta Polinesiako tribuetako kideak ez direla jeloskor jartzen sexu-harreman kontuetan, ez dutela zelo sentimendua ezagutzen, tresna eraginkor bat da argi izateko mendebaldeko zelo sentimendua ez dela halabeharrezkoa; eta beraz, jokaera hori zenbait kasutan kaltegarria bada, zentzuzkoa da ezabatzen edo murrizten saiatzea. Konparaketa eta hobekuntza hori, edozein arlotan egin daiteke, autoritate politikoa aplikatzeko moduetan, familiak antolatzeke moduetan, baliabideen banaketan, eta abar. Bestalde, kulturen arteko irakaspena edozein norabidetan eman daiteke: europarrek ikas dezakegu estatubatuarrengandik, estatubatuarrek tailandiarrengandik, tailandiarrek aldi berean, Hego Amerikako yanomamiengandik eta yanomamiek europarrengandik. Horrek inplikatzeko du gurearengandik oso bestelakoak diren kulturak ez gutxiestea edota gure prismetatik ez epaitzea, eta horren ordez, hausnarketara daramaten irakaspen eta ondorioak bilatzea. Hortaz, hitz gutxitan, etnografiak eta antropologiak gizaki hobe bat eraikitzea izango luke eginkizun gisa.

Nire ustez, horretan saiatu zen Clastres *Crónicas de los indios Guayaquis* lanean, eta bere karrera profesional osoan. Gehien bat autoritate politikoa aplikatzeko eretan egin zuen saiakera, baina baita beste zenbait arlotan ere. Ni ere horretan saiatu naiz monografia honetan; guayakien bizimoduaren berri emate hutsera mugatu beharrean, bizizatzen arlo hori gure gizarte modernoetan kudeatzeko moduarekin alderatzen saiatu naiz eta gutxieneko ondorio batzuetara heltzen.

Saiakera horregatik bikaina iruditzen zait Clastresen lana, baina badira beste zenbait arrazoi. Hasieratik sumatzen da ez dela etnografia klasiko bat non giza-talde baten egunerokoaren nondik norakoen berri ematen den. Estilo mekaniko eta aspergarria erabiltzetik urrun, landa lanean begiekin ikusitakoa eta "bihotza"rekin sentitu eta bizitakoa maisuki nahasten ditu, bere bizi esperientzia kontatuz. Gainera, bere mendebaldeko kulturaren eta guayakien kulturaren arteko ezberdintasun guztiak haur txiki batek bezala bizi zituen edozerren aurrean (kanibalismoa, senidetan sistema, errituak...) eta ongi transmititzen du hori. Oro har, gozatzeko liburua izan da,

estiloarengatik, gaiengatik, eta landa lana egiteko jarrerarengatik. Liburu honekin zenbait gauza ikas daitekeela esango nuke.

3.2. HORRELAKOA AL DA GIZAKIA ESENTZIAZ?

Azken atal honetan etnografia irakurtzean eta batez monografiaren mamia idaztean sortu zaizkidan zenbait kezka plazaratuko ditut. Kezka horiek gizartearen antolaketaren edo gizarte harremanen alorrekoak dira. Izan ere, eduki nagusien atalean landu ditugun lehen hiru gaietan ikusi dugu kulturen artean alde handia dagoela. Ez dela berdin gauzatzen botere politikoa Hego Amerikako oihanetako giza-taldeetan edo Alemaniako giza-taldeetan. Ikusi dugu guayakiek familia eta oinarrizko unitatea eratzeko duten irizpidea ez dela biologikoa soilik eta beste ezaugarri batzuk ere badituela. Sinesmenen esparruan, halaber, ikasi dugu sinesmenek funtzio praktikoa ere bete dezaketela eta ez dela dena mistikotasunean oinarritzen, baizik eta eguneroko bizitzarekin harremana dutela.

Landutako azken gaian, aldiz, ezin izan dugu horrelako bereizketarik egin. Ondorioztatu dugu sexuen arteko rol eta betebeharren banaketa mantentzen dela gizarte tradizionaletan. Eta horrek kezka eta galdera potoloak dakartza. Biologizisten aurrean, defendatu izan da patriarkatua egungo sistema kapitalistak bizirauteko behar duen osagai bat dela, baina funtsean sistemaren arazoa dela, gizakiak ez garela horrelakoak. Orain ikus dezakegu sexuen arteko bereizketa, edo haustura ere esan genezake, sistema kapitalista horretatik at dauden kulturen artean ere badagoela. Orduan zer? Emakumea izaki ahul, sentikor gisa batailatu eta gizona ausart eta indartsutzat hartzea giza naturan dagoen zerbait da? Gizona ehizara, kanpoko lanak egitera, besteekin harremanak egitera joan eta emakumea aldiz, etxean geratu behar izatea gizakiaren esentzian dagoen zerbait da? Hori onartzeak arazo larriak ekarriko lizkiguke; hain juxtu aipaturiko oinarri horretatik datorrelako gerora, politikan gizonak nagusitasuna izatea eta hortaz gizartea balore maskulinoetan oinarritzea, gizonak bere burua boteretsutzat hartu eta emakumeak haien menpeko gisa ulertuz, haiek jipoitu edo hiltzera ausartzea, eta abar luze bat. Esan daiteke lan banaketa ez dela betierekoa eta milurtetan atzera eginez gero, hori bakarrik emakumearen haurdunaldira mugatzen zela eta haurdunaldiaren ondorengo lehen hilabeteetara, eta beraz, posible dela lan erreproduktiboan eta produktiboan banaketa errotik ezabatzea. Nik, noski, defendatuko nuke gizakiak esentziaz sexuen artean bereizketa egiteko joera izanda ere, guk kulturaren indarraz hori iraultzeko ahalegina egin beharko genukeela. Baina nolana ere, kezkak pizten ditu munduan dauden giza-talde gehienetan (guztietan ez esatearren) emakumea gutxietsia eta gizona goretsia pentsatzeak eta badirudi hala dela.

Berdina gertatzen da beren sexuak ezarritako papera betetzen ez dutenen pertsonetikiko tratuaekin. Mendebaldean, Elizaren eraginez, ugaltzera bideratuta ez dauden sexu praktika batzuk gaizki ikusiak daude, beste batzuek jada normaltasuna eskuratu duten arren. Homosexualak oraindik ere, ezkutatzeke esfortzua egiten den arren, gaizki ikusiak daude edo behintzat ez dute heterosexualek duten estatus berdina. Guayakien kasuan, gutxieste hori ez zen sexu praktikengatik, baizik eta gizonen ardura zen ehiza egiten ez jakiteagatik.

Hemen futbolarekin pareka daiteke. Zenbat aldiz entzun ote dugu ikastetxeetako jolastokietan esaldi hau: *horrek ez daki futbolean jokatzeko, marika hutsa da!*. Hemen ere, txikitan behintzat, futbolean jokatzeko ez jakiteak, eta are gehiago nahi ez izateak, gizentasuna kolokan jartzea dakar. Hortaz, gizarte tradizionalenetan ere, badirudi maskulinitatea era zurrunean ulertzen dela eta feminitatea ere beste horrenbeste. Feminitate ez normatiboez ez dugu hitz egin, etnografian ez baitago haren inguruko adibide hurbilik. Gizakiaren esentzian ote dago sexuei egotzitako rola betetzen ez duten pertsonak gutxiatea, lege hausle edo gaizkile balira bezala?

Agian guayakiek eta Hego Amerikako beste giza-talde tradizionalak XV. mendetik aurrera pairatu zuten europar kolonien influentziaz barneratu zituzten jokabide hauek edo, kontrako norabidean, aspalditik izan dituzte horrelako ohiturak. Auskalo! Hala ere, hausnartzeko eta idazlan bat amaitzeko galdera potolo bat dugu esku artean: GIZAKIA ESENTZIAZ HORRELA KOA DA?

BIBLIOGRAFIA

- Autorearen inguruan: https://es.wikipedia.org/wiki/Pierre_Clastres
- Autorearen eraginak: https://es.wikipedia.org/wiki/%C3%89tienne_de_La_Bo%C3%A9tie
- Autorearen pentsamenduaren eta etnografia honen inguruan:
 - <http://manueldelgadoruiz.blogspot.com.es/2010/12/saberes-salvajes-sobre-cronica-de-los.html>
 - http://www.corredordelasideas.org/docs/ix_encuentro/jose_manuel-silvero.pdf
 - <http://jinetedecometas.blogspot.com.es/2014/06/cronica-de-los-indios-guayaquis.html>
- Anna Gabriel haurrak zaintzeko era kolektiboaren inguruan (2.3 an aipatua): <https://www.youtube.com/watch?v=Wv7XOUZGWBk>
- Clastres, Pierre. 1973. *Chronique des indiens guayaki*. Itzul. Alberto Clavería Alta Fulla: Barcelona